## EIBARKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak 2011-3-28an egindako bilkuran hasierako onespena eman zion «auzo-igogailuen erabilera arautzeko Udal Ordenantza»ri.

Espedientea alegazioetarako jendaurrean utzi zen (2011-4-4ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 64. alea eta Ediktuen Ohola) eta inork ez duenez alegaziorik aurkeztu, Ordenantza behin betiko onartutzat ematen da eta, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2. artikuluak eskatu bezala, behar den zabalkundea ematen zaio.

Eibar, 2011ko maiatzaren 5a.—Miguel de los Toyos Nazabal, Alkatea. (5500)

### AUZO-IGOGAILUEN ERABILERA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

*1. artikulua. Ordenantzaren xedea.*

Ordenantza honek «auzo-igogailuak» izenez ezagutzen diren igogailuen erabilera arautzea du helburu.

Auzo-igogailuak hauexek dira: Herriko lekurik aldapatsuenetan edo zailenetan udalak eraiki dituen igogailuak horrelako lekuetan dauden etxeetan bizi direnei irisgarritasuna errazteko asmoz.

Obren proiektuen izenak ematerakoan, helburuan edo zertarakoan auzo-igogailua dela jasoko da.

*2. artikulua. Erabilera arau orokorrak.*

2.1. Erabiltzaileek igogailuari ematen dioten erabilera sekula ez da hartuko erabiltzaile horiendako bakarrik edo euren erabilera pribaturakoa balitz bezala.

2.2. Igogailuaren giltza edukitzeko eskubidea izango dute etxejabe guztiek eta inguruko eraikinetan dauden etxebizitzetako bizilagun guztiek, horko jabeen erkidegoek edo komunitateek Ordenantza honen 6. artikuluan jasotako eran hala egitea erabaki badute.

2.3. Udalak igogailuaren giltzak entregatuko dizkie jabekide erkidegoen Presidenteei edo haien legezko ordezkariei, giltzok etxejabeen artean eta legezko bizilagunen artean banatzeko.

2.4. Igogailuaren erabiltzaileek arau hauek bete beharko dituzte:

— Igogailuaren funtzionamendurako mekanismoa errespetatzea, igogailua manipulatzeke.

— Kalterik ez egitea, zabor organikorik ez botatzea edo uztea –gorputz hondakinak barne-, ezta inorganikorik ere.

— Igogailu barruan ez erretzea.

— Igogailu barruan ez jatea eta ez edatea.

— Igogailu barruan ez gelditzea.

*3. artikulua. Beste erabilera arau batzuk.*

Igogailuaren ordutegia zein izango den erabakitzea eta igogailua erabiltzeak sor dezakeen beste edozein gorabehera igogailuaren ardura duten jabekide erkidegoek edo komunitateek ebatziko dituzte, beti ere Ordenantza honetan jasotakoak eta Toki Erakundeen Ondasunak arautzen dituen araudiak dioena betez.

## AYUNTAMIENTO DE EIBAR

*Anuncio*

El Pleno Municipal de 28-3-2011 aprobó inicialmente la «Ordenanza Municipal reguladora de la utilización de ascensores comunitarios»

Sometido a exposición pública para alegaciones el expediente (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 64 de 4-4-2011 y Tablón de Edictos) sin que se hayan presentado alegaciones, se considera definitivamente aprobada dicha Ordenanza y se procede a dar la publicidad exigida según el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Eibar, a 5 de mayo de 2011.—El Alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal. (5500)

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN DE ASCENSORES COMUNITARIOS

*Artículo 1.º Objeto de la Ordenanza.*

Es objeto de la presente Ordenanza es regular el uso de los denominados «ascensores comunitarios».

Se entiende por ascensores comunitarios los que el Ayuntamiento ha construido en zonas de difícil acceso para facilitar el acceso de los moradores de las viviendas ubicadas en tales zonas.

En la denominación de los proyectos de obra correspondientes se recogerá la condición de ascensor comunitario de su objeto.

*Artículo 2.º Normas generales de uso.*

2.1. El uso del ascensor por los usuarios del mismo nunca se considerará privativo o exclusivo a favor de los mismos.

2.2. Tendrán derecho a disponer de una llave del ascensor todos los propietarios y los moradores legales de las viviendas de los inmuebles de la zona cuyas comunidades de copropietarios así lo hayan decidido en la forma recogida en el artículo 6.º

2.3. El ayuntamiento procederá a entregar a los Presidentes o representantes legales de las Comunidades de copropietarios correspondientes llaves del ascensor, para su distribución a los propietarios y moradores legales de los mismos.

2.4. Los usuarios del ascensor deberán de cumplimentar las siguientes normas:

— Respetar el mecanismo del funcionamiento del ascensor, no manipulando el mismo.

— No ocasionar desperfectos, ni tirar o dejar basura orgánica, incluidos desechos corporales, o inorgánica.

— No fumar en su interior.

— No comer ni beber en su interior.

— No permanecer en su interior.

*Artículo 3.º Otras normas de uso.*

Los horarios de funcionamiento y cualquier incidencia que origine el uso del ascensor serán resueltas por las comunidades de copropietarios correspondientes, siempre y cuando se respete lo recogido en la presente Ordenanza y la normativa que regule el régimen de los bienes de las entidades locales.

*4. artikulua. Igogailua mantentzea.*

Igogailua mantentzea, eta hura garbitzea ere, dagokion erkidegoaren edo komunitatearen kargu geratuko da.

Era berean, komunitatearen kargu geratuko dira baita igogailuak behar dituen konponketak eta derrigorrezkoak diren aseguruak kontratatzea.

Edozelan ere, udalak diru-laguntzak eman diezazkieke erkidegoei edo komunitateei esandako gastu horiei aurre egin ahal izateko.

*5. artikulua. Erantzukizunak.*

Erkidegoek ondoko erantzukizun hauen ardura hartuko dute euren gain:

— Igogailuan egindako kalteen erantzukizuna.

— Igogailuaren funtzionamenduaren ondorioz beste hirugarrengo bati egindako kalteen erantzukizuna.

*6. artikulua. Atxikimendu erabakia.*

Igogailua dagoen tokiaren inguruko jabekide erkidegoek –igogailuari dagokion obra-proiektuan egingo den zerrendan aipatutakoak- igogailuaren erabilera-onuradun izatearen erabakia hartuko dute Ordenantza honetan jasotako obligazioak edo betebeharrak onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartuta.

*7. artikulua. Igogailuaren erabilera bertan behera uztea edo kentzea.*

Erabiltzaileek ez-betetze larriak egiten badituzte eta igogailuari kalteak sarritan egin izan bazaizkio, Udalak igogailuaren erabilera bertan behera utzi edo kendu dezake, aldi baterako edo betiko.

Interes publikoak hala egitea eskatuko balio, igogailua aldi baterako geldirik edukitzeko erabakia har dezake.

*8. artikulua. Erabiltzaileen Elkarteak.*

Ordenantza honen seigarren artikuluan aipatzen diren jabekideek eta bizilagunek Erabiltzaile Elkarteak eratu ditzakete.

Horrelako kasuetan, udalaren eta jabekide erkidegoaren arteko hartu emanak, obligazioak eta eskubideak, elkarte horiekin eta elkarteon legezko ordezkariekin izango dira.

Horretako, etxe jabekideen erkidegoek edo komunitateek, seigarren artikuluan jasotako erabakia hartu behar dute.

Elkarte horiek deseginez gero, jabekide erkidegoak izango dira haien ondotik etorriko direnak, elkarteek zituzten obligazio eta eskubide berdinekin.

*Azken Xedapena.*

Ordenantza hau, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osoosorik argitaratzen denetik 15 lanegunera sartuko da indarrean.

*Artículo 4.º Mantenimiento.*

El mantenimiento del ascensor, incluida su limpieza, correrá a cargo de las comunidades correspondientes.

Asimismo correrá a su cargo las reparaciones que se precisen y la concertación de los seguros obligatorios.

No obstante, el Ayuntamiento podrá aprobar ayudas económicas a las comunidades para que hagan frente a estos conceptos.

*Artículo 5.º Responsabilidades.*

Las comunidades correspondientes serán responsables de:

— Los daños y desperfectos ocasionados en el ascensor.

— Los daños a terceros derivados de su funcionamiento.

*Artículo 6.º Acuerdos de Adhesión.*

Las comunidades de copropietarios ubicadas en la zona y relacionadas en el proyecto de obra correspondiente, adoptarán acuerdo de ser beneficiarias del uso del ascensor con el compromiso de aceptar y cumplir las obligaciones recogidas en la presente Ordenanza.

*Artículo 7.º Supresión funcionamiento.*

En caso de incumplimientos graves por parte de los usuarios que ocasionen repetidos desperfectos o daños en el ascensor, el Ayuntamiento podrá temporalmente o definitivamente clausurar su uso.

Así mismo podrá disponer el cese temporal del funcionamiento del ascensor por causa de interés público.

*Artículo 8.º Asociaciones de Usuario.*

Los copropietarios y moradores de los inmuebles recogidos en el artículo sexto podrán constituirse en asociaciones de usuarios.

En tales supuestos las relaciones, obligaciones y derechos recogidas entre Ayuntamiento y comunidad de copropietarios lo serán con dichas asociaciones y sus representantes legales.

Para ello las comunidades de copropietarios correspondientes habrán de haber adoptado el acuerdo recogido en el artículo sexto.

En los supuestos de disolución de tales asociaciones serán las comunidades de copropietarios correspondientes quienes las sucederán sin solución de continuidad en sus obligaciones y derechos.

*Disposición Final.*

La presente Ordenanza entrará en vigor en el plazo de quince días hábiles a partir de su publicación íntegra en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.